

GEPeko irakaslea e-demokraziari buruz 2 hitzaldi eman ditu

2007/11/30

Osane Lizarralde, elektronika eta informatika departamentuko irakaslea, e-demokrazia buruzko 2 hitzaldietan parte hartzera gonbidatu dute, azaroaren 10ean eta 19an, Gasteiz eta Sevillan, hurrenez hurren.

Lehengoa, Tomas y Valiente Formazio Eskolak antolatuta, eta bertan parte hartu dute Jose Antonio Soler (kazetaria eta 20 minutu aldizkari digitalaren zuzendari nagusia), Iñaki Anasagasti (EAJ-PNV senataria), eta Oscar Rodriguez (PSE-EE Eusko Legebiltzarkidea), biak blogeroak.

Bigarrena, Hiri Gizatiartuko foroak antolatutakoa, eta Juan A. Martinez Troncoso (Sevillako Udaleko Berrikuntza Teknologikoko ordezkaria), eta Montserrat Mirman (Guadalinfo programaren zuzendaria eta Andaluziako Juntaren Informazio Gizartearen Sarbiderako zerbitzuko burua) ere hitz egin dute.

M.U. Eusko Legebiltzarrarekin ari da elkarlanean e-demokrazia ikerketa proiektuan 2004. urtetik eta 2007an formazio eta zabalkunde ekintza ugari egin dira, besteak beste, uztailean egin ziren udako ikastaroak.



e-Demokrazia foroaren irudia